

#01

POETIKA ETA KRITIKA LITERARIOA. NARRATIBOTASUNARI BURUZKO HAUSNARKETAK PAUL RICOEUR-EN LANEAN

Federico José Xamist

Literaturaren Teorian eta Literatura Konparatuan lizentziatuta

Universitat de Barcelona

Aipatzeko gomendioa || XAMIST, Federico José (2009): "Poetika eta kritika literarioa. Narratibotasunari buruzko hausnarketak Paul Ricoeur-en lanean" [artikulu linean], *452ºF. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 1, 66-76, [Kontsulta data: uu/hh/ee], < <http://www.452f.com/issue1/poetica-y-critica-literaria-reflexiones-en-torno-al-concepto-de-narratividad-en-paul-ricoeur/> >.

Ilustrazioa || Patricia Martínez

Itzulpena || Amaia Donés eta Berta Alcalde

Artikulu || Jasota: 2009/04/14 | Komite zientifikoak onartuta 2009/05/11 | Argitaratuta: /2009/07/01

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe.



Laburpena || Saiakera honetan Ricourrek proposatzen duen ibilbidea interpretatzen saiatuko gara, testua sortzen denetik, gizakiaren esperientziaren ebidentzia den egitura narratiboko intepretazioa egin arte. Horrekin frogatu nahi duguna zera da: lan literarioa ez dela errealitateko gertakari isolatu bat, baizik eta errealitate honen momentu hermeneutikoa. Hau da, existentzialismoa sortzeko beharrezkoak diren esperientziak planteatzeko eta azaltzeko modua. Horretaz gain, eta Ricoeurren eskutik, XX. mendean hizkuntzalaritza eta hermeneutikak literaturan izan duten eragina interpretatzen saiatuko gara, eta ildo horri helduz, bi eskola horiek Aristotelesen *Poetika-ri* egin dizkioten ekarpenak.

Hitzak || Ricoeur | Poetika | Narratibotasuna | Testua | Forma | Errealitatea | Hermeneutika.

Abstract || The present article attempts to read the itinerary suggested by Ricoeur, which starts with the appearance of the text, and finishes with its interpretation as evidence of the narrative structure of human experience. Having done this, we propose to demonstrate that the literary work does not represent an event isolated from reality, but its hermeneutic moment, i.e. a way to think about and catalyze experiences that give way to certain existential courses. In the second place, together with Ricoeur, we attempt to read the influence of Linguistics and Hermeneutics on 20th century literary thought, and the recovery of Aristotle's *Poetics* carried out by both schools.

Keywords || Ricoeur | Poetics | Narrative | Text | Form | Reality | Hermeneutics.

Se puede intentar negar el problema mismo y considerar como no pertinente la cuestión del impacto de la literatura sobre la experiencia cotidiana. Pero entonces, por una parte, se ratifica paradójicamente el positivismo que generalmente se está combatiendo, a saber: el prejuicio de que sólo es real el dato que puede observarse empíricamente y describirse científicamente, y por otra, se encierra la literatura en un mundo en sí y se rompe la punta subversiva que lanza contra el orden moral y social. Se olvida que la ficción es precisamente lo que hace del lenguaje ese supremo peligro del que Walter Benjamín, tras Hölderlin, habla con temor y admiración.

P. Ricoeur, *Tiempo y narración*.

UPaul Ricoeurrek kritika literarioan egindako ekarpenetan garrantzitsuenetarikoa da testu literarioa, bere baitan, kritika literarioa gertatzeko ezinbestekoa izatea. Testurik gabe, instantzia komunikatibo ugari gerta daitezke, baina inolaz ere literatura deritzogun instantzia komunikatiboa. Eskola formalista XX. mende hasieratik testua “forma” gisa ulertu behar dela jabetzen hasi zen eta garai hartatik aurrera lan literarioa hurreratzeko moduetan bereizketa garrantzitsu bat zehaztu zuen: fikzioa eta errealitatearen arteko bereizketa. Abangoardia artistikoaren munduan fikzioa errealitatearen instrumentu iraultzaile bat bihurtu daiteke. Aldiz, hizkuntzalaritzan formaren kontzeptu hori edozein ekintza komunikatibora eraman daiteke, eta beraz, fikzio eta errealitatearen arteko erlazio gatazkatsu hori isileko erabaki bihurtzen da. F. de Saussurek bere *Cours de linguistique générale*-n proposatutako hizkuntza eta mintzamenaren arteko banaketak hizkuntza estroktoretan banatua zegoela ulertzeko bidea ireki zuen, hau da, konpetentzia linguistikoko maila konkretu batera heldu ahal izateko, hizkuntza guztiz objektiboa den keinu sistema bat da. Bestalde, Ricoeurrek ohartarazi nahi du hizkuntza itsu-itsuan horrela ulertu ezkeror, kritika literarioaren hausnarketarako zerumuga desagertuko litzatekeela. Izan ere, kasu horretan, lanak, “komunikazioaren merkaturak”, hizkuntza kodean gertatzen diren milaka formulazioetatik beste bat izango liratekeelako bakarrik. Horrela balitz, artea jada ez litzateke zientziak gobernatutako errealitatearen osagarria baino izango. Ricoeurrek XX. mendeko kritika literarioari egindako ekarpena, beraz hori da: errealitatea eta fikzioaren artean dagoen formaren kontzientzia hori berreskuratzean, eta, aldi berean, aurreko bien arteko ezberdintasunak kontuan hartuz. Beraz, esan dezakegu, testuaren eta hizkuntzaren artean egin diren gogoeta teorikoen muina hurrengo dela: bai usteez eta baita eguneroko esperientziez ere osatzen den hausnarketa puntu bat sortaraztea.

Ricoeurrek formaren kontzientzia errealitatea eta fikzioaren arteko bereizketa kategorikoa baino zerbait gehiago dela dio. Berarentzat, testua ez da “errealitatearen parean” dagoen zerbait eta hausnarketa pertsonalek sortu duten zerbait; testuak gizakion esperientzia denborak zedarritzen duela frogatzen du:

Cada acaecimiento discursivo es, en efecto, un acaecimiento evanescente; pero su sentido permanece. Por ello, dicho sentido puede ser fijado mediante la escritura. El sentido del discurso y la intención de su emisor dejan de solaparse en ese momento, y el destino del primero se separa del segundo, como veremos posteriormente al analizar la noción de «discurso» como texto y obra. (Ricoeur 1999:49)

1978ko artikulu baten zati den pasarte horretan, Ricoeurrek testuaren inguruan egiten dituen hausnarketen norabidea irakur dezakegu, *La Metáfora viva-tik* (1975) *Tiempo y narración arte* (1983-85). metafora instrumentu heuristikoa gisa hartu ezker (diskurtso zientifikoko “modelo”-ekin konparatzen badugu), narratibotasuna giza esperientzia gisa “artikuatzea” badugu, denborak mugatzen duelarik. Nahiz eta metafora eta narrazioa teoria literarioko bi esparru ezberdin izan (metafora “tropo”-etakoa, eta narrazioa “genero”-etakoa) biak dira hizkuntzaren esparru berekoak, bai berrikuntzei dagokienez, eta baita biak hizkuntzaren unitate txikienetatik sortzen direlako ere. E. Benvenistek hizkuntzako maila ezberdinen inguruan egin zuen bereizketan oinarrituz (oinarrizko unitatea perpausa litzateke berarentzat), Ricoeurrek metaforak esanahiak “ordezkatzeko” baino, zentzuaren “tentsio” gisa. Narrazioa, beraz, errealitatearen aurrean zentzuaren tentsioa litzateke ere

Hizkuntza berritzea, ordea, ez da aurrez ezarritako errealitate baten “ondoan” ageri. Horren ordez, denotaziotik konotaziora doan arkuan hedatzen da, giza ekintza ororen izaera poetikoa agerian utziz. Testua, beraz, poema edo “egindako gauza” bezala, esperientziaren horizontean ondo txertatuta geratu behar da, errealitatea eta fikzioaren arteko disjuntzioa gainditu ahal izateko: “Hay que equilibrar, por tanto, el axioma de la clausura del universo de los signos con una mayor atención a la función principal del lenguaje, que consiste en decir. En contraste con dicha clausura, esa función constituye una apertura” (Ricoeur, 1999: 46).

Mario J. Valdésekin, *La interpretación abierta: introducción a la hermenéutica literaria contemporánea* liburuan ziurtatzen du hermeneutika kritika literarioa egiteko oinarri egokiena dela, teoria historizistekin, formalistekin eta dekonstruktibistekin alderatuta, testuaren eta errealitatearen arteko jarraipena ziurtatzen baitu ekintza komunikatiboari dagokionez. Subjektu-objektuaren arteko eskema intenporala ez da nahikoa arte lana interpretatzeko. Izan ere,

eskema honetan denbora esperientzia ezabatzen zaio ezagutzari esperientzia komunikagarri, nahiz eta esperientzia komunikagarri honek, gizaki gisa osatzen gaituen denbora etorkizunaren isolatutako objektu bat existitzea ahalbidetzen badu ere: “[...] las bases de una hermenéutica fenomenológica se derivan del cuestionamiento de la relación sujeto-objeto y es a partir de este cuestionamiento que observamos por primera vez que la idea de objetividad presupone una relación que comprende al objeto supuestamente aislado” (Valdés, 1995: 64). Testu bat interpretatzeko ez da beharrezkoa obraren “aurrekoa” eta “geroa”ren artean sortzen den gurpil hermeneutikoa apurtzea, Ricoeurren obran testua “bitartekari” bezala aurkezten baita, Testuaren fikzioak dakarren errealitatearen ezagutza “ikasketa” bezala aurkezten du Ricoeurrek, hau da, objektuan amaitzen ez den ezagutza, baizik eta partekatutako esperientzian etengabe berritzen dena.

Tiempo y narración Ieko Lehenengo Zatiko I kapituloan, Ricoeurrek San Agustinek *Confesionese*ko IX liburuan landutako denboraren esperientziaren aporia aurkezten du narratibotasunari buruzko galdera egiteko abiapuntu bezala aurkezten du. Denboraren aporiak fikzioaren planoan sortzen du, errealitateak teorian aldagaitz bihurtutako sekuentzian haustura bat eragiten baitu (*quid est enim tempus? si nemo ex me quaerat, scio; si quaerenti explicare velim, nescio*). Aporia hau jakintza kontraesankor batek eragiten du; izan ere, zehazten den momentuan ez-jakintza bihurtzen baita. San Agustinen arabera, denboraren esperientzia *intentio*ak eta *distentio anímica* definitzen dute: giza ekintzaren “tentsioa” proiektuan eta memorian erakutsia. Nola gainditu giza jakintzari berezekoa zaion ziklikotasuna beti agertzen bldin bada denbora esperientziaren zehaztugabetasunean murgilduta nahiz eta ezagutzaren objektu bezala azaleratzen den? Hala ere, fikzioaren eta errealitatearen artean mugitzen den giza ezagutza honek “jakiteko” aukera bakarra ematen digu.

Denboraren aporiari emandako erantzun posible bezala, Ricoeurrek Aristotelesek *Poétican* planteatutako *mimesis* kontzeptua erabiltzen du (*Tiempo y Narración I*, Lehen Zatiko II kapitulua). Aristotelesen *mimesis*a giza ekintzen *mimesis* bat da (*mimesis tôn pragmatôn*) eta ez errealitatearen imitazio hitsa, ziklo klasizistak definitu zuen bezala. *Mimesis*aren bitartez, gizakiak bere lehen ezagutzak (*tàs mathêseis*) “ekoizten” (*poieîtai*) ditu (*Poética*, 1448b). Aristotelesen *mimesis*a, Ricoeurrek nabarmendu bezala, “ariketa mimetiko” bat da, errealitatea ulertzeko modua definitzen duena eta giza ekoizpen guztien (*poiêmata*) alorra osatzen duena; izan ere, “[...] el tiempo se hace tiempo humano en la medida en que se articula en un modo narrativo, y la narración alcanza su plena significación cuando se convierte en una condición de la existencia temporal” (Ricoeur,

1987: 117). Bere aldetik, kritika literarioaren hausnarketa testuaren hermeneutikari dagokionez, datza “[...] en reconstruir el conjunto de operaciones por las que una obra se levanta sobre el fondo opaco del vivir, del obrar y del sufrir, para ser dada por el autor a un lector que la recibe y así cambia su obrar” (Ricoeur, 1987: 118). Era honetan, narratibotasunaren kontzeptuan, metaforaren teoriaren barruan, ez da sormen literarioa bizitza errealari paraleloa zaion ekintza bezala ulertzen, baizik eta instantzia etiko bezala, errealitatea ulertzeko baliabide egokiak eskaintzearen zentzuan: “[...] seguimos, pues, el paso de un tiempo prefigurado a otro refigurado por la mediación de uno configurado” (Ricoeur, 1987: 119).

Denbora batetik bestera hizkuntzaren bitartekaritzarekin igarotzeak bakarrik ahalbidetzen digu denboraren jabe izatea; horrela, ez guke sortuko garrantzirik gabeko momentuen segida abstraktoa, baizik eta, denbora esperientzia bat, artikulatutakoa eta komunikagarria. Ricoeurrek hiru denbora momentu hauek Aristotelesen *mímesis* kontzeptuaren hiru momentu estrukturaleri lotzen dizkie. Aurreirudikatzeak eta berrirudikatzeak testuaren “aurrekoari” eta “geroari” egiten diote erreferentzia: narrazio oro ekintzaren munduaren aurre-ulermenean dauzka sustraiak eta guztiz garatzen da soilik egiteari eta jasateari dagokion denboran. Aurreirudikatzeak *mímesis*aren lehen momentuari dagokio (Ricoeurrek *mímesis I* izendatzen du). Gizakiaren egiteko oro mundua ulertzeko maila batean edo bestean “mugitzen” da. Ulermen modu hau ez da zertan erabat zehaztua egon behar, baina egin behar duguna, hasi behar duguna edo albo batera utzi behar duguna zer den esaten digu. Analisiaren puntu honetara helduta, Ricoeurrek erreferentzia egiten dio “barne denboratasunari” (*Innerzeitigkeit*), Heideggerrek *Ser y Tiempoko* Bigarren Sekzioko IV atalean azaleratutako kontzeptuari. Heideggerren aburuz, denbora ez da “hor” dagoen zerbait, objektu bat gehiago bailitzan: denbora “denborarartzen” da behin eta berriro –denbora egiten da– ekintzetan zehar. “Barne denboratasuna” eguneroko lanei eskainitako denborei dagokio eta ziklo naturalek (gaua eta eguna, erein eta uzta egitea) ezartzen dute. Ricoeurrek esan bezala, “lanen eta egunen” denbora da. Egutegiak dagoeneko zehaztua dauka denbora hau. Hala ere, aurretik zehaztutako denbora bada ere, interpretatu beharreko denbora esanguratsua da. Munduaren ordena esanguratsuaren “barruan” ematen den denbora da eta “ekintzaren semantika” sortzen duena.

Ricourren arabera, Aristotelesek *Poétican* aztertutako *páthos* tragikoa lehen momentu mimetiko honi dagokio. Aristotelesentzat ekintza tragikoa zorian gertatutako aldaketa baten ondorio da (*metábasisa*) Tragediaren taxutze poetikoaren baitan, zorian gertatutako aldaketa hau peripeziak (*peripéteia*), onarpenak (*anagnôsis*) eta gertakari patetikoak (*páthos*) eragiten dute. Hauek

dira *mythos*aren hiru zatiak, berau ikuspuntu etiko batetik ulertuta (Poética, 1452a-b). Nahiz eta zati hauek –*mythos*ari dagokionez– *mímesis*aren bigarren momentuari dagozkion, literatura taxutze edo fikzioari erreferentzia egiten diona, alegia, denbora esperientzia oro osatzen duen zori aldaketa baten ondorio dira. San Agustinek denbora ulertzeko zuen moduan, *intentio* eta *distentio animi* gisa, hain zuzen –Ricoeurren hausnarketaren abiapuntua–, denboraren igarotzea zoriaren aldaketa etengabe bezala ulertzen da. Era honetan, eguneroko lanetan murgilduta gaudenean ere, gudan gertatzen diren aldaketetaz konturatuko ez bagina eta zentzurik emango ez bagenie, ezingo genuke begikotasuna edo ezinikusia sentitu konfigurazio narratibo batean aurkezten zaigun prozesu zehatz batetiko. Desberdintasuna, hain zuzen, da fikzioaren plano esanguratsua den ekintza baten hausnarketa bera dela:

[...] la poética recurre continuamente a la ética, aun cuando aconseje la suspensión de cualquier juicio moral o su inversión irónica. El propio proyecto de neutralidad presupone la cualidad originariamente ética de la acción anterior a la ficción. Esta misma cualidad ética no es más que un corolario del carácter principal de la acción: estar desde siempre mediatizada simbólicamente. (Ricoeur, 1987: 127)

Era honetan, fikzioa ekintzaren semantika batetik sortzen da beti, baina *mímesis*aren bigarren momentu estrukturalak aldaketa bat ezartzen du: gertakarien taxutzea. Deskribapen honen abiapuntua Aristotelesek *mythosi* emandako definizioa da, berau “ekintzen taxutze” gisa ulertuta (*systasis tòn pragmatôn*) (Poética, 1450b). *Mythosa* ez da unitarioa denboraren osotasuna deskribatzen duelako, baizik eta argumentu bakar batean gertatzen zaizkigun gauza anitzak jasotzeko gai delako. Ricoeurren analisisian, *mímesis* //k hizkuntzan eguneroko bizitzari aurreikusitako denbora taxutzeari dagokio: “[...] la construcción de la trama es la operación que extrae de la simple sucesión la configuración” (Ricoeur, 1987: 136). Segida hutsa denbora lantzen ditugun gaiei esker ulertzea besterik ez da: eguna eta gaua. Gizakiari dagokion denbora iragana eta etorkizunaren, zentzua duena zein ez, arteko topo egitea da. Puntu honetatik eratortzen da beharra hizkuntzaren arabera ekintzak taxutzekoa, eta, bertan, denbora esperientziaren historikotasuna nabarmen egiten da.

Heideggerren denboraren fenomenologiaren barruan, “historikotasuna”k (*Geshcichtlichkeit*) “barne denboratasunetik” –eguneroko lanetan ematen dugun denbora– “denboratasun”erako pausua markatzen du: denbora gizakiaren etorkizunaren horizonte transcendental bezala ulertzea (*Ser y Tiempoko* Bigarren Sekzioaren V atala). Ricoeurrek arreta jartzen du historia eta fikziozko ipuinaren arteko desberdintasunean: biak dira denboraren konfigurazioak, baina lehenengoa narrazio kronologiko bat da, eta bigarrena episodikoa. Hala ere, Heideggerren kontzeptuak Ricoeurrek bi

diskurtsoen arteko “gurutzatutako erreferentzia” deitutakoa dauka. Historikotasunak ez dio erreferentzia egiten bakarrik historiari denboraren ezagutza objektibo bezala ulertuta –alemanez *Historie* da eta Heideggerren *Geschichtlichkeit*etik datorren momentu bat da–; historikotasunak, diskurtsoaren momentu sortzaile gisa hartuta, zerbait “kontatzearen” zentzua dauka, gertatu den hori kontatzen duenarentzat esanguratsua delako eta entzuten duenarengan eragina izan dezakeelako. J. E. Riverak *Ser y Tiempo*ko bere itzulpenean egindako ohar batean adierazi bezala (496. orr.), *Geschichtlichkeit* hitza alemanierazko *geschehen* aditzetik dator, eta “gertatzea” du esanahi. Historia gertakari bezala ulertuta gizakia bera da, ekintza esanguratsu batean. Ekintzaren narratibotasun propio honek, Ricoeurrek nabarmendu bezala, denboraren konfigurazio zehatz bat eskatzen du, bai kronologikoa zein episodikoa izan; izan ere “[...] al mediatizar los dos polos del acontecimiento y de la historia, la construcción de la trama aporta a la paradoja (del tiempo) una solución: el propio acto poético” (Ricoeur, 1987: 138).

Noski, behin ekintza taxutzalea beharrezkoa dela justifikatuta gertaera eta historiaren arteko bitartekari gisa, beharrezkoa da galdetzea nola bueltatu daitekeen poema –eta ez ekintza, baizik eta gauza– denboraren igarotzera. Lehenago esan bezala, Heideggerrek denbora ikusteko duen moduan historikotasunak markatzen du igarobidea munduko gauzen artean galdutako denboratik ekintzan urruneko helmuga edo horizonte bezala islatutako denborara. Horizonte hau, horizonte bisualak objektu bat ikustea ahalbidetzen duen era berean, munduaren isla den argumentuko ekintza solte bakoitza posible egiten du, eta mimesisaren hirugarren elementuak osatzen du: berrirudikapenak. Errealitatearen denbora ez da betirako geldi beratzen testuaren fikzioaren markoan, baizik eta berau zeharkatuz igarotzen da, eta errealitatea berrirudikatzearen ondorioz bakarrik gauzatzen den proiektu bihurtzen da: “[...] la obra escrita es un esbozo para la lectura; el texto, en efecto, entraña vacíos, lagunas, zonas de indeterminación e incluso, como el Ulises de Joyce, desafía la capacidad del lector para configurar él mismo la obra que el autor parece querer desfigurar con malicioso regocijo” (Ricoeur 1987: 152).

Mimesis III, Ricoeurren ustetan, Aristotelesen kátharsis kontzeptuan ageri da. *Kátharsis*a medikuntzako termino bat da, eta erreferentzia egiten dio gaixotasun bat sendatzeari. Aristotelesek tragediaren esperientziarekin lotzen du: tragediaren kátharsisa “gaixo” egoera batean egotetik egoera “osasuntsu” batera beldurrarekin eta errukiarekin igarotzeari lotzen dio (*dí’eléou kai phóbou peráinousa tén tón toióútôn pathêmátôn kátharsin*) (*Poética*, 1449b). Polis greziarren testuinguruan, igarotze hau ezjakintasunetik ezagutza izatera pasatzeari dagokio, eta hiritarraren askatasuna bermatzen

duena. Aristotelesek, kritika literarioa egiteko desegokia iruditu ahal zaigun kontzeptu bat erabiltzen badu ere, agerian uzten du ikerketa gaia ez dela amaitzen analisi zientifikoarekin. Mimesis kontzeptua ezin zaio mugatu testuaren fikzioaren eta bere ekintzen errealitatearen arteko analisi egizale bati. Hain zuzen, *páthos* tragikoa ulertzeko ekintzaren izaera etikoa fikzioaren aurretik datorrela kontutan hartu behar den bezala, *kátharsis* fikzioaren osteko ekintza bat sortzen du, gizakiaren askatasuna aldarrikatuz. Ekintza poetiko bikain hau errealitatearen berrirudikapen etengabea da.

Analisiaren hirugarren zati honetan, Ricoeurrek XX mendeko bigarren zatian kritika literarioa egiten duten bi eskolen postulatuei egiten die erreferentzia: “El texto sólo se hace obra en la interacción de texto y receptor. Sobre este fondo común se destacan las dos aproximaciones diferentes: la del acto de lectura y la de la estética de la recepción” (Ricoeur, 1987: 152). Gero, W. Iser eta R. Jaussen hausnarketak berresten du, bi teoriak berdina defendatzen dutelako alderdi honi dagokionez: “[...] el texto es un conjunto de instrucciones que el lector individual o el público ejecutan de forma pasiva o creadora” (Ricoeur, 1987: 152).

Berrirudikapenak, irakurlearen ekintza sortzaile gisa ulertuta, bai bere burua eta baita denboraren esperientzia historikoan partekatutako errealitatea aldatzeko, ziklo hermeneutikoa ixten du. Ziklo hau berriro hasten da eguneroko bizitzako denborara bueltatzen denean. Hala ere, honek ez du esan nahi harrapatzen gaituen gurpil zoro batean sartzen gaituenik; izan ere, ekintzarako espazio bat zabaltzen digu, eta bertan, fikzioak eta errealitateak denboraren esperientzia irekitzen den eremua osatzen dute, esperientzia komunikagarri bihurtu araziz. Era honetan, argi geratzen da ez gaudela norbanako isolatu baten mundu objektibo eta aldagaitzera mugatuta, Heideggerrek esan bezala. Ez da beharrezkoa zikloen norabidea aldatzea; honen ordez, garrantzitsuena da ziklo horretan parte hartzeko atea era egokian ireki daitekeela ziurtatzea. Ricourrentzat, sarrera hori denbora esperientziaren ezaugarri den narratibotasunak ematen du; bere hitzetan honelaxe justifikatua: “la poética de la narratividad responde y corresponde a la poética de la temporalidad”.

Azken atal honetan ikusi dugunez, Ricoeurrek Aristotelesen hausnarketa –testua ikuspuntu kritiko batetik aztertu daitekeela dioen lehenengoa– eta kritika literarioa lantzen duten egungo bi eskolena uztartzen ditu.

Hala ere, irakurleak fikzio literarioan duen garrantziari buruz Iserrek eta Jaussek emandako iritziak kontutan hartu gabe, ziurrenik Ricoeurrek ezin izango zuen *kátharsis* aristotelikoa deskribatu egin zuen bezala: testuko fikzioa bilakaera tenporalera itzultzeko duen

modua irakurlearen bitartez. Era berean, XX mende hasierako formalismoaren eta estrukturalismoaren ekarpenak gabe, ezin izango zuen argitu Aristotelesen *mythos* kontzeptuan esperientzia tenporalaren “konfigurazioa”. Honen guztiaren atzean San Agustinen obran agertzen den denboraren aporiari egindako analisia eta Heideggerren “denboratasuna” kontzeptuaren azterketa daude; horiek gabe, Ricoeurrek ezin izango zuen testu literarioa justifikatu gizakiaren izatearen instantzia etiko gisa. Zentzu honetan, Ricoeurren hausnarketa mugarri bat izan zen XX mendeko kritika literarioan, kolektiboaren esperientzia bultzatu duen eta beti bultzatuko duen hausnarketa baten historikotasuna berreskuratzen baitu. Era berean, agerian uzten du eskola desberdinak ez direla bata besteari gailentzen; horren ordez, ehun intelektual bat sortzen dute, eta obra literarioa beti dago ehun kolektibo horretan, behin eta berriro egingo zaizkion interpretazioen zain.

Bibliografía

- ARISTÓTELES (2003): *Poética*, Aníbal González (ed.), Madrid, Visor.
- HEIDEGGER, Martin (1998): *Ser y Tiempo*, Santiago de Chile, Ed. Universitaria.
- (1957): *Sein und Zeit*, Tübingen, Max Niemeyer.
- RICOEUR, Paul (1999): *Historia y narrativa*, Barcelona, Paidós.
- (2001): *La metáfora viva*, Madrid, Trotta.
- (1997): *Retórica, poética y hermenéutica*, Cuaderno Gris, nº 2.
- (1987): *Tiempo y narración I*, Madrid, Ed. Cristiandad.
- VALDÉS, M. J. (1995): *La interpretación abierta: introducción a la hermenéutica literaria contemporánea*, Amsterdam, Rodopi.